

Xanistebanak '09

Oiarzun



2009ko Sanixtebanak

agurra

Urtebete azkar pasatzen bada ere, aurtengo Xanistebanetarako agurra idazteko orduan atzera begiratzen hasi eta denbora laburrean zenbat gauza aldatu diren ohartu naiz...

Nabarmen aldarazi nahi duten horietako bat, herritarrok euskal preso politikoei publikoki adierazten diegun elkartasuna eta maitasuna da. Errealitatea ezkutatu nahi dute, hau da, herri honetako gatazka politikoa eta bere ondorio krudelak.

Horrek oiartzuarrontzat dakarren jauziagatik, normalean agurraren bukaeran aipatzen den gaia lehen lerroa ekarri nahi izan dut aurtengoan. Izan ere, dagoeneko hasiak dira 740 pertsonak osatzen duten errealitate gordina ezkutatu nahian: kale eta herrietatik preso politikoen argazkiak bortxaz kentzen, herriko plazan espetxetik atera diren lagunei maitasunez egin nahi diegun ongietorria legez kanporatu eta bortxaz galarazten... terrorismoari gora-zarre egitearen aitzakiarekin, gatazka politikoa eragin dituen ondorioak, errepresaliatu politikoa, desagerrarazi nahi dituzte, lotsarik gabe!

Eragozpenak eragozpen, herri honetako euskal preso eta iheslari politikoei gure elkartasuna eta maitasuna adierazten jarraituko dugu, etxean egon arte!

Bestalde, sistema neoliberalaren oinarri den desorekak eta zentzurik gabeko kontsumoak krisi ekonomiko-sozial ikaragarria eragin du aurten, eta asko dira hilabete bukaerara ezin iritsiz, itota, egoera larrian dauden herritarrak. Diruaren espekulazio-



arekin poltsikoak bete dituzten guztiei (banketxeak, konstruktoreak, politikariak eta espekulatuzaileak) negozioa amaitu bazaie ere, gerrikoa estutzea beti berdinei tokatzen zaie, herritar xeheei alegia.

Halere, Xanistebanak oiartzuarrontzat jaiegun bereziak izan ohi dira, eta urte osoan lanean gogor jardun ostean, denok merezi dugu gozamina eta ongi pasatzea. Gurekin egongo ez diren herritarrak ere gogoan izango ditugu herriko festetan. Animo denoi eta ongi pasa Xanistebanetan!

Gora Oiartzun!
Gora Xanistebanak!

Aitor Etxeberria Txurio
Oiartzungo alkatea

abuztuak 2 igandea

Oiartzungo Udalak, Herri Elkarten laguntzaz eta bere zaindari Done Ezteberen ohoretan, abuztuaren 2, 3, 4, 5 eta 6rako eratu duen jai eta kultur ekintzen egitaraua

- 16:00** Auzoz auzoko XXVIII. ibilaldia: **OIARTZUNGO SOINU JOTZAILE, TXISTULARI eta MUSIKARI** gazteen talde bat ibiliko da auzoz auzo, Xanistebanak hastera doazela iragarritz.
Antolatzailea: Lartaun KJKE elkarte.
- 17:00** Euskal Herriko **ERRALDOIEN X. TOPAKETA**, Oiartzungo herrian zehar, Landetxeko Plazatik abiatuta, Elizalde Trikitixa Eskolaren eta txarangaren laguntzaz.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa.
- 19:30** Oiartzungo Jai Batzordeak proposatuta, **OIARTZUN KIROL ELKARTEKO** nesken eta mutilen taldeetako ordezkariak, Oiartzungo alkateak, Udaltzako beste kideak eta Jai Batzordeko gainontzeko kideak, lehen **SUZIRIA** botako dute, eta honek, kanpai-soinu alaitzuekin batera, Jaien hasiera adieraziko du.
- Jarraian** Udaltzako kideak **SOKA-DANTZA** dantzatuko dute Herriko Plazan, Haurtzaro Dantza Taldearen eta txistularien laguntzaz.
- Jarraian** **OIARTZUNGO ERRALDOIEN ETA TXISTULARIEN** kalejira, herrian zehar.
- 20:30** Euskal Preso eta iheslari politikoen aldeko **BRINDISA**, Amnistiaren Aldeko txosnan.
Antolatzailea: Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- 22:30** **ROCK KONTZERTUA** Landetxe plazan.
Antolatzailea: Oiartzungo Musika Taldeen Elkarte.
- 23:00** **ZINEMA GAUEAN**, Madalensoro Plazan.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa.
- 23:00** Dantzaldia, **LAIOTZ** taldearekin, Done Eztebe plazan.
- 00:30** Jaien hasiera ospatzeko **BRINDISA**, Kataxulo Gaztetxian.
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.
- Ondoren** Gauean, Joko Eroa, Kataxulo eta Txosnen inguruan.
Antolatzaileak: Kataxulo Gaztetxia eta Euskeran Itotiyak.
- 01:00** Euskal Preso eta Iheslari Politikoen aldeko manifestazioa eta bideo emanaldia.
Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- 02:00 - 05:00** **ALKOHOLIMETROAREN ESPERIENTZIA**, Landetxeko frontoian (parkingaren inguruan): autoa hartu aurretik egiazta ezazu alkohol gehiegi edan duzun.
Antolatzailea: Udal Prebentzio Kontseilua.
- 03:30** **ZOZONGOK** giroa alaituko du kaleetan goizaldea arte.

abuztuak **3** astelehena

XANISTEBAN EGUNA

- 07:00** SOKAMUTURRA, Beheko Plazan.
Antolatzailea: Ergoiengo Jai Batzordea.
- 09:00** GOIZ ERESIA, Lartaun Txistulari Taldearekin.
- 11:00** HERRI MEZA NAGUSIA, Done Eztebe Parrokian. Organo-jolea: Begoña Bergaretxe. Mezaren bukaeran, musika-saio laburra Lartaungo eta Parrokiako abesbatzen eskutik Joxe Manuel Azkueren omenez.
- Ondoren** HERRI MUSIKA eta DANTZA SAIOA, Kontzejupean, AIKO taldearen MAISUAK ikuskizuna, maisu zaharren tradizioa eguneratuta.
Antolatzailea: Lartaun Txistulari Taldea.
- 12:00** POTTOKAK ETA ZEZEN TTIKIAK, Beheko Plazan.
Antolatzailea: Ergoiengo Jai Batzordea.
- 17:00** Elorsoro Kiroldegian, Oiartzungo Auzoen Arteko XXIII. SOKATIRA TXAPELKETA.
Antolatzailea: Artaso Elkartea.
- 17:30** Oiartzualdeko HAURREN KROSA: irteera, Landetxeko Plazatik.
- 18:00** Oiartzualdeko XIII. HERRI KROSA: irteera, Landetxeko Plazatik.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldioen Konpartsa.
- 18:30** Xanistebanetako JOKO GARBICO II. TXAPELKETA, Beheko Plazako pilotalekuan. Oiartzun-Zubieta (bi partida: 18:30ean haurrena eta 19:30ean helduena).
Antolatzailea: Oiarpe Joko Garbi elkartea.
- 19:30** PILOTA PARTIDA ikusgarriak pilotari profesionalekin, Madalensoro pilotalekuan.
Antolatzailea: Oiarpe KE eta Oiartzungo Udala.
- 22:00** ROCK JAIALDIA, Done Eztebe plazan, honako taldeekin:
Uko
Kudai
Lendakaris muertos
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.
- 00:30** Gazte Mugimenduaren urteko bideo-emanaldia, Done Eztebe Plazan.
Antolatzailea: gazte independentistak.

abuztuak **4** asteartea

BASERRITAR EGUNA

- 09:00** GOIZ ERESIA, Lartaun Txistulari Taldearekin.
- 10:00** Oiartzungo XIV. KALEKO MARGO LEHIAKETA, Done Eztebe Plazaren inguruan.
Antolatzailea: Margosoro Pintura Akademia.
- 10:00** IDI DEMAren lehenengo txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan. Oiartzungo harria erabiliko da (1.800 kg-koa). 1.100 kg-tik gorako pisua duen idi pare bakoitzak 1,5 kg-ko gain-zama hartu beharko du gainditzen.
Antolatzailea: Esku Garbiak Elkartea.
- 11:00** ZAHARREN EGOITZARAKO BISITALDIA, Haurtzaro Ikastolako Dantza Taldearekin, txistulariekin eta trikitilarekin.
Antolatzailea: Haurtzaro ikastola.
- 12:00** Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko PINTXO-LEHIAKETA, elizaren inguruan.
Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- 12:00** Helduen ikastaroetako KANTU ETA GITARRA SAIOA, Done Eztebe Plazan.
Antolatzailea: HELTA, Helduen Tailerrak.
- 12:45** BERTSOLARIAK, Done Eztebe Plazan. Sebastian Lizaso eta Beñat Gaztelumendi bertso kantuan.
Antolatzailea: Oiartzungo Bertso Eskola.
- 13:30** Oiartzungo XIV. KALEKO MARGO LEHIAKETAren sari banaketa, Udal Areto Nagusian.
Antolatzailea: Margosoro Pintura Akademia.
- 13:30** ERRALDOIEN KALEJIRA, Oiartzungo herrian zehar, Landetxeko Plazatik abiatuta.
- 13:30** Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko HERRI-BAZKARIA, elizaren inguruan.
Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- 14:00** Oiartzungo Udalak BAZKARI GOXO BAT ESKAINIKO DIE HERRIKO ERRETIRATUEI, Gazte Izanak eta Done Eztebe Parrokiaren laguntzaz. Ondoren, musika izango da, nahi duenak dantza egin dezan.
- 17:00** IDI DEMAren bigarren txanda, hilerriaren goiko aldeko plazan.

abuztuak 4 asteartea

BASERRITAR EGUNA

- 17:00** Oiartzungo Emakume Taldeak egindako lanekin, **HELDUEN TAILE-
RREN XII. ERAKUSKETA** (margoak, bolilloak, eskulanak, taila,
pachwork, altzari-berritzea eta abar), Kontzejupean.
Antolatzailea: HELTA, Helduen Tailerrak.
- 17:00** Kale Animazioa: **PATATA TROPIKALA**, haurrentzako antzerkia,
Done Eztebe plazan.
Antolatzailea: Elizalde Herri Eskola.
- 19:30** Euskal Preso eta Iheslari Politikoen aldeko **KARTELADA**.
Etxean eta bizirik nahi ditugu!!!
Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- 19:30** **HERRI KIROL EN JAIALDIA**, Haurtzaro ikastolako plazan.
Aizkolariak: Mikel Mindegia eta Ander Erasun / Donato Larretxea eta
Ruben Saralegiren aurka.
Harri-jasotzaileak: Iñaki eta Iñaxio Perurena aita- semeak.
Antolatzailea: Iturri-Berri Elkarte.
- 19:30** Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko **ARETO FUTBOLEKO
TXAPELKETA**ren finalerdiak, Haurtzaro ikastolan.
Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- 22:00** **ROCK JAIALDIA**, Kataxulo Gaztetxian, taldeekin:
Fala non caduca
Northaya
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.
- 22:30** **ARGIA** dantza taldearen **AXERI BODA** ikuskizuna,
Elorsoro kiroldegian.
Antolatzailea: Haurtzaro Dantza Taldea.
- 23:00** **ZINEMA GAUEAN**, Madalensoro Plazan.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa.
- 23:00** Dantzaldia, **TRIKIDANTZ** taldearekin, Done Eztebe plazan.
- 23:30** **HELDUEN DANBORRADA**, Oiartzungo kaleetan zehar.
Antolatzaileak: Ergoiengo Jai Batzordea eta Haurtzaro ikastola.

abuztuak 5 asteazkena

GAZTEEN EGUNA

- 09:00** **GOIZ ERESIA**, Lartaun Txistulari Taldearekin.
- 09:30** **ZEKORRA ERRETZEN** hasiko dira, Done Eztebe plazan.
- 13:00** **GAZTE TXUPINAZOA** plazan, gazte guztiak biltzeko. Segidan, kalejira
herriko tabernetatik, musikaz lagunduta.
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.
- 13:30** **ERRALDOIEN KALEJIRA**, Oiartzungo herrian zehar, Landetxeko Pla-
zatik abiatuta.
- 14:30** Goizean erretako zekorrarekin, **GAZTE BAZKARIA**, Done Eztebe pla-
zan.
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.
- 16:00** Haur mailako banakako **XII. XAKE LEHIAKETA**, Kontzejupe plazan.
Antolatzailea: Haurtzaro ikastola.
- 17:00** **JOLASAK**, taldeka.
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.
- 17:00** Oiartzungo VII. Trikitilari Gazteen Txapelketa, Landetxeko Plazan.
Antolatzailea: Haurtzaro ikastolako Trikiti Eskola.
- 18:00** **KALEJIRA, THE TXORTAINS** taldearekin.
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.
- 19:00** **XIX. ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA**, gaztetxoentzat,
Landetxeko Plazan. Bertan Gipuzkoa osoko bikoteak lehiatuko dira.
Dantzariak 1995eko urtarrilaren 1aren ondoren jaioak izango dira.
Antolatzailea: Aldeguna Elkarte.
- 23:00** Dantzaldia, **BIDE BATEZ** taldearekin, Done Eztebe plazan.
- 00:00** **ZINEMA GAUEAN**, Madalensoro Plazan.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldoien Konpartsa.
- 01:00** **EUSKAL KARAOKEA**, Kataxulo Gaztetxian. Aste gutxian IV. piropo
lehiaketa izango da Oiartzungo taberna eta txosnetan.
Antolatzailea: Euskeran Itotiyak elkarte.

abuztuak 6 osteguna

HAURREN EGUNA

09:00 GOIZ ERESIA, Lartaun Txistulari Taldearekin.

10:00 Oiartzungo HAURREN PILOTA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak, Kontzejupean.
Antolatzailea: Oiarpe KE

11:00 Gaztetxoaren DANBORRADA.
Antolatzaileak: Ergoiengo Jai Batzordea eta Haurtzaro ikastola.

12:30 KANTU KANTARI. Kantuzale den guztiak herri kantuen sorta ederra abesteko aukera izango du herriko kaleetan barrena (herritar guztiak gonbidatuta daude).
Antolatzailea: Lartaun Abesbatza.

12:30 ARKUME ERRETZEA:
"ARKUMEA BURDUNTZIAN, A ZE POZA TRIPAN SARTZIAN".
Done Eztebe Plazan herri poteoaren hasiera.

13:30 ERRALDOIEN KALEJIRA, Oiartzungo herrian zehar,
Landetxeko Plazatik abiatuta.

14:30 ARKUME JATEA. Bazkalondoa TXARANGAk alaituta.
Antolatzailea: Ardi Latxa elkarte.

16:00 Xanistebanetako XIV. TRUK TXAPELKETA,
Madalensoro pilotalekuan.
Antolatzailea: Munanier Elkarte.

16:00 - 20:00 Haurtzaro ikastolako jolastokian, UME ETA GAZTEEN-TZAKO PARKEA (quad-ak, fort-koiote, goming, indioak, txirrista, fantasia puzgarria). Den-dena doan, 3 urtetik 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat.
Antolatzailea: Haurtzaro ikastola.

17:15 ARETO-FUTBOL TXIKIA, Xanistebanetako 4. Txapelketa:
LHko mutilen finala (8-12 urte), Haurtzaro ikastolan.

18:00 ARETO-FUTBOL TXIKIA, Xanistebanetako 4. Txapelketa:
LHko nesken finala (8-12 urte), Haurtzaro ikastolan.

18:45 ARETO-FUTBOL TXIKIA, Xanistebanetako 4. Txapelketa:
DBHkoen finala (12-16 urte), Haurtzaro ikastolan.
Antolatzailea: Gazte Foroa.

18:30 Xanistebanetako PALA TXAPELKETA HERRIKOIAren finalak (neskak eta mutilak), Kontzejupean.
Antolatzaileak: Kataxulo Gaztetxia eta Girizia Pilota Sails.

18:30 Haurrentzako TXOKOLATADA, Ikastolako jolastokian.
Antolatzailea: Haurtzaro ikastola.

18:30 Oiartzualdeko XIV. MARMITAKO TXAPELKETA, Landetxeko Plazan.
Ondoren Marmitakoa dastatzeko aukera, Landetxeko Plazan, trikitilariak giroa alaituta.
Antolatzailea: Oiartzungo Erraldioen Konpartsa.

19:30 Euskal preso eta iheslari politikoen aldeko ARETO FUTBOLEKO TXAPELKETAren finalak, Haurtzaro ikastolan.
Antolatzailea: Oiartzungo Amnistiaren Aldeko Mugimendua.

20:30 Oarsoaldeko eta Donostialdeko III. DULTZAINEROEN ETA DANBOR-JOTZAILEEN kalejira, herrian zehar.
Antolatzailea: Herri Musikaren Txokoa.

22:00 ROCK JAIALDIA, Kataxulo Gaztetxian, taldeekin:
Luz de Putas
Berbena
Antolatzailea: Kataxulo Gaztetxia.

23:00 Udal Igerileku inguruan su artifizialen sorta erreko du
ASTONDOA PIROTEKNIA etxeak.

Ondoren Elizaldeko kaleetan zehar, ZEZENSUZKOA ibiliko da, Lartaun Txistulari Taldeak Idiarena doinuz lagundurik.

23:30 PATXI ETA KONPAINIArekin dantzaldia, Done Eztebe plazan.

OHARRAK

Barraketan prezio bereziak izango dira Oiartzunen Xanistebanetan:

Bidaia bat: euro bat

7 bidaia: 5 euro

15 bidaia: 10 euro

KULTUR EKITALDIAK

uztailak 31 ostirala

19:30 BdB piano-joleekin musika jaialdia, Done Eztebe Elizan, HIESaren aurkako Oiartzungo Harri Beltza elkartearen eskutik.

abuztuak 1 larunbata

18:00 Udal Areto Nagusian, Xanistebanetan ohitura den bezala, **Oiartzun 2009** urtekariaren aurkezpenari ekingo dio Udal Kultura Batzordeak.

Jarraian Kattin Txiki taldeak Mugarri bildumarako idatzi duen liburua aurkeztu du (XVI. zenbakia): **Isiltzen ez den isiltasuna**.

Ondoren **Isiltzen ez den isiltasuna** altxamendu frankistari buruz Kattin Txiki taldeak prestatu duen bideoaren lehen emanaldia izango da. Xanistebanetako ondoko egunetan ere ikusi ahal izango da, orduz honi jarraituz: arratsaldeko 17:00etatik gaueko 21:00ak arte.

Era berean Xanistebanak **2009 kartel lehiaketako irabazleen sariak** banatuko dira.

Bukatzeko **Joxe Mari Isasa** margolari oiartzuarraren erakusketa aurkeztuko da.

17:30 - 03:00 **Goiko Eskolatik mundura bira** jaialdia, Landetxeko Plazan. Antolatzaileak: Goiko Eskola, Kataxulo Gaztetxia, Txosna Batzordea eta Laia taberna.

Xanistebanak irauten duten bitartean,

ERAKUSKETA hauek izango dira:

Isiltzen ez den isiltasuna altxamendu frankistari buruz Kattin Txiki taldeak prestatu duen bideoaren emanaldia, Manuel Lekuona Bibliotekan, orduz honi jarraituz: arratsaldeko 17:00etatik gaueko 21:00ak arte.

Joxe Mari Isasa margolari oiartzuarraren erakusketa, Udal Areto Nagusian, goizeko 11:00etatik eguerdiko 14:00ak arte, eta arratsaldeko 17:00etatik gaueko 21:00ak arte.

Udaletxean: Oiartzungo **Kaleko XIV. Pintura Lehiaketan** parte hartu duten lanen erakusketa. Goizeko 11:00etatik eguerdiko 14:00ak arte eta arratsaldeko 17:00etatik gaueko 21:00ak arte.

Manuel Lekuona Udal Bibliotekan: **Xanistebanak 2009 Kartel Lehiaketan** parte hartu duten kartelen erakusketa. Arratsaldeko 17:00etatik gaueko 21:00ak arte.

KIROL EKITALDIAK

abuztuak 2 igandea

08:30 XXVIII. EHIZA ZAKUR LEHIAKETA, Leuneko Xabalan (Gurutze auzoan). Antolatzailea: Bizardia Ehiza Kirol Elkarte.

10:00 LXII. XANISTEBAN TXIRRINDULARI SARIA, 23 urtez azpiko eta elite mailako txirrindularientzat. Antolatzailea: Lartaun Zikloturistak.

15:30 XVIII. PLATER-TIRAKETA ekitaldia, Arkaleko zelaian, herritar eta bazkideentzat. Sariak beterrano, gazte eta emakumeentzat. Antolatzailea: Lartaun KJKE.

Oiartzun Irratiak, bere X. urteurrenean, goizero-goizero **Arguyuan** saioa emitituko du. Xanistebanak gertutik jarraituko ditu goizeko hamarretatik ordu bata arte (abuztuaren 4an, 5ean eta 6an). Oiartzun Irratia, urrutira jo gabe!

OHARRA Oiartzungo Udalak ez ditu bere gain hartuko jai hauetan gerta daitezkeen zorigaitzak. Halaber, egitarau honetan adierazten diren festa edo ekintzetan iruditzen zaizkion aldaketak egiteko ahalmena du.

AZALA: Xanistebanak 2009 iragartzen dituen kartela.
EGILEA: Eneko Salaberria Gonzalez.



OIARTZUNGO
UDALA



EUSKAL PRESOK
EUSKAL HERRIRA